

# 1778ko eskuizkribu bat Albeniz-Arabako euskarari?

VICTOR HIDALGO EIZAGIRRE \*

Donostia, Abendua 1995

Don Julio Urkijok Gipuzkoako Diputazioari utzitako bibliotekan, bada ale bat, Bartolome Olaetxea (1723-1795)<sup>1</sup>, munitibartar<sup>2</sup> eta Laukarizko *curea* izanak, bizkaieraz eginiko *Dotrina Cristiana* arrakastatsuen<sup>3</sup> bigarren argitalpenarena. *Dotrina*-ren lehen argitalpena *Vitoria*-n egin da, 1763. urte inguruan. Bigarrena ere *Vitoria*-n 1775. urtean argitaratzen da zenbait gehiketarekin, eta askoz kuriosoagoa dena, erabat aldatuz lehenengoaren hitz-ordena nabarmen atzeratzearen poderioz aditzaren gunea, zeinnahi motetako esalditan<sup>4</sup>. Hain justu Kardaberazek egin zuen ildo berean 1760 eta 1766 bitartean argitaratu zituen obretan. 1775. urterako, ordea, Olaetxea ez da jada Laukarizko *curea* eta honela aurkezten da bigarren argitalpen hau (1775, 1 or):

DOTRINA CRISTIANA. / D. BARTOLOME OLAECHEA / Bilboco Ospitale Santuco Erreto-  
reac Laucarizco Cura zanean Jai Domequetan espliquetan evana leguez. / ORAIN BARRI-  
RO IMPRIMIDU DA Bilboco Errefugio Erreal, eta Misericordia Santuco Cofrade, ta  
Aguintari Jaunen costuz, etse Santu onetaco zar, eta gazteai Dotrina eusqueraz iracas-  
teco. / VITORIAN BEARDIREAN LICENCIA guztiaçaz Tomas Robles, eta Navarroen etsean.  
/ MDCCLXXV. / SALCENDA BILBON MISERI-cordiaco etse Santuban<sup>5</sup>.

\* Euskal Filologian Doktorea.

1. Datak X. Altxabarrek ematen ditu bere *Bizkaierazko idazle klasikoak* liburuan (Bizkaiko Foru Aldundia, 1992).

2. Jatorri hau E. Gerrickoitia, eraberean munitibartarrak, pertsonalki adierazia da.

3. J. Bilbaok 17 argitalpen jasotzen ditu, zeinetako 16 1883a baino lehenagokoak.

4. Egin dugu guk hitz ordenaren aldaketa benetan interesgarri hauen azterketa bat gure *Hitzen or-  
dena euskaraz* doktore tesiaren ataletako batean (Gasteiz, Filologia Fakultatea, 1995, argitaragabea),  
*Bartolome Olaechearen Dotrina Cristiana(k): 1763 eta 1775* izenekoa, in *Cardaverzen eskola bat, XIX.  
mendean barrena*, in *Euskal gramatikariaren testigantza: iritziak eta, praktika idatziak*.

5. Marra etzanak (/) lerrokada jauziak adierazi nahi ditu.

Aipatu alean, aurkezpen honen segidan bertan ageri da eskuz dotore idatzia hurrengo esaldia ere (1 or.)<sup>6</sup>:

Costazan erreal bi terdi Eche Santu / onetan: 1778<sup>7</sup>.

Hurrengo orrialdearen gainaldean, berriz, dio esku segurasko bere batek oraindik letra dotoreagoz (2 or.):

Albeniz Año de 1778

Ez dago beste esku oharririk 10. orrialdearen burura arte. Dotrina 9. orrialdean hasten da ematen *Fedeco Articulubac*, eta *Jangoicotasunari* dagozkion zazpiak eman ondoren hasiko da *Umanidadeari edo Guizatasunari* lotutako beste zazpiekin. Bigarrenaren azken bi lerroak 10. orrialdean ematen dira eta segidan, inprenta akats batez pentsa litekeenez, hirugarrenaren ordeaz laugarren artikulua ematen da, hirugarrena ez delarik beste inon ageri. Orrialde buruko esku oharrak, aurrekoen letra molde desberdin batez egina, baina gero ere berriro aurkituko duguna, hirugarren artikulua hutsune hori betetzera dator, eta dio hala:

3. Yrugarrena. Sinistu artuebala eriotza eta passioa guc / pecatarioc salvetiagaiti.

Ez dakigu esku-oharraren egileak berak asmatzen duen artikulua letra edota beste nonbaitetik kopiatu edo moldatzen duen<sup>8</sup>. Olaetxearen *Dotrinearen* lehen argitalpenak bestela baitio (1763, 13):

Irugarrena, sinistu; artu evala eriotcea, ta pasiñoa, gu becatarioc salbetearren.

Edota oraintxe eskueran daukagun beste berrargitalpen batek dioen bezala (1848, 9) <sup>9</sup>:

Irugarrena, sinistu artu ebala erijotcia, eta pasiñoia, gu becatarijoc salbetiarren.

Liburuan barrena ez da beste esku-oharririk aurkitzen, eta hau 166. orrialdean amaitzen da segidako exhortazio euskaltzale interesgarri eta interesatu honekin (1775, 166):

Jesu-Cristoen Eriotza, eta Pasiño Santubagaiti, eta Ama Virginearen Doloreac gaiti erregututen deutset Escola Maisubai, arren baserrietaco Mutilchubai eusquérac iracurten iracatsi deioela, euren Guraso, ta etsecoen aurrean, edolabere neguco gau lucétan, Dotrinea iracurri daien.

Orrialde honetatik aurrera, ordea, baditu liburuak, zenbatu gabe, aurrekoen beretsuak diren beste 62 orrialde ere <sup>10</sup>, guk hemen izendatuko ditugunak 167tik 228ra. Orrialde hauek hasiera batean idatzi gabeak behar zuten izan, harik eta liburuskaren erabiltzaileak bere eskuz betetzen dituen arte.

Eraskin honen parte nagusia, 175. orrialdetik 217ra, gaztelaniaz dago idatzia, lehen eta bigarren orrialdeko oharren letra molde berean, eta “onsa

6. Aurrerantzean eskuizkribuko lerro jauziak adieraziko ditugu barra makurtu batez (/).

7. Bokal *i* gehienek daramate *i*-aren puntua markatua azentu zorrotz baten marra balitz bezala.

8. Hasierako *y* greko eta guzti; *guc* izenordearen ergatibotasun bitxiarekin; edota segidan ikusiko dugun bezala, *-agaiti* atzizkiaren erabilerarekin, beste argitalpenetako (behintzat orain eskueran ditugunetako) *-arren* atzizkiaren ordeaz (nahiz bestelakoan bi atzizkiak ere erabiltzen diren Dotrinen era beretsu batean).

9. Argitalpen honek 1848ko inpresio data darama eta lehen orrialdean dio: *orain bederatcigarrenez reimprimidu da*; nahiz J. Bilbaoren arabera, badiren hor tartean beste zenbait berrargitalpen hemen zenbatu gabeak.

10. Gaur eguneko enkoaderazioan bederen, baina, itxura guztiz, hala izan bide da jatorrian ere.

hiltzen laguntzeko bide bat” erakusten du, *Breve Ynstrucción para ayudar a bien morir* izenburu pean (175 or.)<sup>11</sup>.

218. orrialdea txuri geratzen da, eta 219tik 221era, berriz, latinez idatziak ematen dira, 10. orrialdean aurkitzen genuen letra molde harez berez, Ama Birjinari eginiko hainbat inbokazio, *Forma de bendecir el Havito de N.ª S.ª del Carmen* titulu pean (219 or.). Latinezko testuaren amaieran erasten da gaztelaniaz segidako ohar-instrukzioa (221):

El cura que es y fuere / de Araya tiene facultad / para bendecir los / Havitos de N.ª S.ª de el / Carmen.

222. orrialdea txuri dago, eta 223 eta 224an ematen ditu berriro beste be-deinkazio baten formulak latinez, orain hirugarren letra molde desberdin eta ez horren zaindu batez, *Bendicion para el habito de Difuntos* titulu pean (223). Berriro geratzen dira txuri 225, 226 eta 227 orrialdeak, eta 228. eta azken orrialdearen buruan, eta orain laugarren letra molde batez (1, 2 eta 175-217 orrialdeetakoaren antzekoa, baina kasuan askoz ere karaktere handiagoetan) adieraziko du liburuaren jabetza (228):

De D. Julian García / Albeniz Pro Cura / y Benef<sup>do</sup> de Ordo- / ñana / año de 1778

Letra beretsu batez, izen eta urte bera ageri dira bestela ere eskuz idatziak, orduan Bilboko herri izenarekin batera, liburuaren azal gogorra eta lehen orrialdearen artean, paperezko bigarren azal loreztatu batean, eta eskuz eginiko gurutzearen azpian, honelatsu:

+ / D. Julian Garcia / Albeniz / Bilbao / Año 1778

\*\*\*\*\*

Esku idatzien zatirik interesgarriena, nolana, eraskinaren lehen orrialdeetan aurkitzen da. 167 orrialdetik 173ra ematen da euskaraz idatzia testu bat (1, 2 eta 175-217 orrialdeetakoaren antzeko letraz) honela dioena, *Acto Contriciocoa eriotzaco orduracò* izenburu pean<sup>12</sup>:

[167 or.] ACTO CONTRICIOCOA ERIOTZACO / ORDURACÒ.

Ea Jesus<sup>13</sup>, izanzadiz neurezat Jesus / neurea! Ea, neure Jauna, eta Jaungoi- / coa, ya el-dudà orduba, ceñean zure / piedade santuba gueiago biardúdan! / Aguiquetandut, Jauna, deieguiten / nauzula, Juiciora. Neure arima / affligidua, eta angustiaz betea, be- / guira eguizu nola zeure Jaungoi- / coac deieguitendezun zure vitci / gaitstoaren<sup>14</sup> contuematera. Ve- / guirazazú<sup>15</sup>, cein zuzena dan Ja- / unguà [sic]. Deieguitu Ceruco Santu / guztiai zuri laguneguitera; eta / viotz gustitic esan eguiozu [sic]<sup>16</sup>: Ea / Ceruco Biena-

11. Segidako izenburu hauek erakusten ditu atalka: *Conformación con la voluntad de Dios* (175); *Pide el alma à Dios perdon de sus culpas* (177); *Llora el alma sus culpas y el olvido en amar à su Dios* (180); *Llega el alma desengañada de las cosas del mundo à que la reciba Dios* (182); *Hacese cargo el Alma de haver vivido olvidada de Dios* (184); *Afectos a la SS.ª Cruz* (186); *Afectos à Maria Santissima* (188); *Actos de Fè, Esperanza y Charidad* (191); *Esperanza* (199); *Acto de Contricion* (203); *Virgen SS.ª* (208); *Angeles* (208); *A la Agonia* (210); eta *Adicion* (214).

12. Testua nahikoa ondo irakurtzen da, eta ditugun zalantzak oharretan adierazten ditugu.

13. Ez dago garbi, azentu zirkunflexu bat dagoen s-aren gainetik, ala den, interjezio zeinu tartekatutatu bat.

14. Irakur liteke ere beharbada *gaitsto...*, *gaitsto...*-ren ordez.

15. Ez dago garbi azentua den edo ez, *u*-aren gainean.

16. Ez dago garbi bi puntu diren (:), ala puntu eta koma bat (;) zirriborratua ageri delako azpiko puntu edo koma behar lukeena.

venturadubac, ze- / ñec vitcizaràn [sic] neure Jaungoico / eta Criadoreaquin <sup>17</sup>, assistidunaizu [sic] / neri becatariari; entregaitera- / [168 or.] nua bada neure Jaunaren escue- / tan neure arima au. Santu neure- / debociocoac erregutueguizu [sic] nigati / Jaungoicoari, barcatu dichadala / neure becatuac <sup>18</sup>. Ea neure Angueru <sup>19</sup> / Guardacoa, audà orduba, ceñean / gueiagio biardodàn zure asisten- / cia; Lagundueguidazu neure <sup>20</sup> / Jaungoicoaren presenciaràño, / eta an nigatic erregutu eguizu / galdu eztaadin <sup>21</sup> neure arima au, / cein neure Jaunac encomendadu- / dizun. = Ama Virginia San- / tissima, afligiduric dauzen <sup>22</sup> con- / suelo, eta becatari guztien am- / paroa! Ordu onetan, Virginia / Santissima, biardut zure pa- / trociño, eta amparaù: Itzan / zadiz <sup>23</sup>, Señora, nere Abogada / [169 or.] zure Seme, eta neure Jaunan au- / rrean: Erregutu eguizu barcatu / deiztala neure becatuac: baldin zuc / erregutcen badiozu, eztut dudaric / Jaun arc, barcatuco deuztalà <sup>24</sup>; cer- / gatic, ezaturic neure culpac ez- / catcen deutzat barcacioa <sup>25</sup> biotz guz- / -titi. = Ea, Jesus neurea, eldunaiz / zugáná, neure becatuac erreconoci- / duric; Abri- / gaduegizu <sup>26</sup> Jauna zure / Creatura au, cein costaduzazun / zeure gorpuceco odol precioso; neri / barcaquetaco, solam.<sup>te</sup> guraduzu neu- / re arrepentimentua: ba diot, Jauna, / biotz guztiti: Neure, JesuChristo Jau- / na, Jaungoico, eta guizon egui- / z- / coa: baño, nola diot neurea; bein- / ere izan ezpanaiz ni becatari- / au / zeurea: gueiagio guraizan- / badut nic / [170 or.] munduonetaco gauzac zu baño? <sup>27</sup> / Baño ia erreconocidui- / c, humi- / lladui- / c, eta arrendidui- / c zuga- / na eldu naiz, zeregati zu zaran / nere Redemptorea; confianza an- / dibatequin zuc becatari- / ai emon- / diozun verba artan: Edozain- / [sic] / orduban, ceñean becataria etor- / tendan zugana arrendiduric, / barcatuco di- / zula bere becatuac / eta admitiduco dozula <sup>28</sup> zeure am- / istade, eta gracion.

Neure JesuChris- / to Jauna, Jaungoico, eta Guizon egui- / azcoa. O <sup>29</sup> Jesuchristo, neure vitciza! nor <sup>30</sup> ofendidu dudan <sup>31</sup> neure pecatua- / quin! Neure Jaungoicoa, Neure / Aita, eta Jauna! Neure Metcede <sup>32</sup> / gailea, [sic] eta neure ondatzun guztia! / Neuri deut- / zazan <sup>33</sup> itzana emon, eta / etzervere ezeti criadu ninduanari; / oni ofendiduneven? Oni agraviatu- / [171 or.] neven nic, itzanagaz ni criatu- / tura [sic] vil, eta indigno bat; ez- / tavena / mereci lurran gueñean egotea? / Baña, Jesus, neure arimearen / Jueza, eztautendot cerala infini- / toa ceure Justician; baña bai ere / ceure misericordian; eta alan / Neure Redemptorea ceure miseri- / cordiagana apelaiten dot, etzcatcen / dotzula mi- / sericordia; eta pecatari / fragilaleguez eguindodan ofensaen / barcacioa. Ezteutzut Neure / Jaungoicoa, ezcatcen, parcatunai- / zula Infernucio penan vildurra- / gaiti, cei-

17. Interjezio moduko arrasto bat ere ageri da komaren gainean punturik gabe.

18. Izan liteke beharbada azentu kamuts arrasto bat azken *a*-ren gainean.

19. Izan liteke hainbat behartuz gero *Angueru*, *Angueru*-ren ordez.

20. Irakur ere liteke beharbada *neures*, baina segurasko da azken zeinua, *e*-aren zuztar amaiera.

21. Izan liteke *estadin*.

22. Hala irakurtzen da, nahiz testuinguruarengatik genitibo bat espero zitekeen *dauzenen* edo modukoa.

23. Koma hau ez da garbia.

24. Azentuak ez dira garbiegi irakurtzen kasu askotan, izan litezkeelarik beste nolabaiteko markak edo. Kasu honetan ere.

25. Azken *a* honek azentu zorrotzaren arrasto bat darama, eta gainetik, hau ezabatzen bezala, beste arrasto bat gurutzatua azentu kamutsarena bezala.

26. Gainetik zirriborratua dagoelarik aditz laguntzailea, *i* bat ageri da *g*-aren gain aldetik idatzia, *eizu* forma irakurtaraziz, edota *egizu*. Ez ordea inola, *eguizu*.

27. Azken *ñ* honen tildea ez da batere garbia.

28. Ez da ondoegi irakurtzen aditz flexioaren *o* hori, izan zitekeelarik hainbat behartuz gero *u* bat, edota are, *e*.

29. *O* kapital honek eraman lezake gainean azentu zorrotz bat, nahiz izan litekeen berau goiko le- / rroko koma ere.

30. Ez da oso garbi irakurtzen azken hitz hau. Aurreko lerro bukaeran beste hitz baten lehen silaba (ondoren gidoi arrasto bat duena) ageri da zirriborratua. Esango litzateke, zirriborratua ageri dena dela *ce*-silaba, eta erlatibo honen bigarren partea *in* idatzi zuela autoreak hurrengo lerroaren hasieran. Azkenik hitza aldatzea erabakita, *ce*-hori ezabatu, eta aprobeztatu ote zituen *in* horien arrastoak gainetik idazteko *nor* hitza.

31. Azken lau letrak, erdi-zirriborratuak, ez dira ondoegi irakurtzen, izan zitekeelarik aditz flexioa *deu*... itxurako beste zerbait.

32. Beharbada irakur liteke *Mercede* ere, logikoagoa, *Metcede* horren ordez.

33. Izan liteke akaso *deustazan* ere, edo beharbada probableago oraindik *deutcazan*, *c* ondo bitxi batez *a* baten aurrean.

ñac merecideudan <sup>34</sup> neure / pecatuagaitic; Ezcatcendiotzut [sic] / bai Zeu añ ona itzaganagaz, ofen- / diduagaitic; eta cergatic amai- / tenzaitudan munduco gauza / [172 or.] guztiac baña gueiago; Neure ari- / ma, eta neure vitciza baño gueiago: / bada amaduco zeinduquet naiz ez- / palego Infernuric, ceñegaz peca- / taria <sup>35</sup> castigadu, solam. <sup>te</sup> zeralaco / Zerana, infinitam. <sup>te</sup> Ona; bada / Zera Neure Jaungoicoa, neure / Ayta, eta Redemptorea; Onegaitic / Amaitenzaitut; onegaiti deucat / damutazun andibat Zeu ofendi- / dua; eta proponietandot ez gue- / iago ofendidua. Etzarri egui- / dazu, Neure Aita, zeure bendit- / cio santuba, eta onegaz parcatu / eguizu neure culpac, merecidei- / dan zeure gracia; elquetanda- / bada orduba, neretaco ain desea- / duba. Ja, Jauna, neure <sup>36</sup> / enfermedadeac acabaiten nau: / Ja, neure Potenciac, dagoz movi- / [173 or.]mentu bagaric. Ja neure ari- / mea despedietan doa vere gorput- / cetic <sup>37</sup> Zugana joateco. Ja, Jau- / na emotendot atcereingo <sup>38</sup> suspirio, / eta alientoa. Parcatu, Jauna, / Parcatueguidazu. Misericordia, / neure Jaungoicoa, eta piedadea, / badà Vere ezcuetan, neure Jesus / ona, entregaiten dot neure ari- / mea. Zeuc Jauna Redimiduza- / ben, [sic] admitiduzazu zeure Compa- / ñia Santuban Amen.

Testua da, kurioski, aurrerago gaztelaniaz ematen den *A la Agonia* ataleko haren (210-214 orr.) euskarazko bertsio nahiko estu lotu bat, nahiz baidituen ere bere aldeak. Segidan ematen dugu gaztelaniazkoa, eta honen parean esaldiz esaldi euskarazkoa ere, alderaketa erraz honek merezi duelakokan <sup>39</sup>:

210 or.] A la Agonia

Acto Contriciocoa eriotzaco ordu-  
racò.

Jesus, Jesus, sed para mi Jesus mio.

Ea Jesus<sup>^</sup>, izanzadiz neurezat Jesus  
neurea!

Ea <sup>40</sup> mi Dios y Señor, ya llegó la hora en q.<sup>e</sup> mas necesito de vtrã<sup>41</sup> piedad.

Ea, neure Jauna, eta Jaungoi-coa, ya  
eldudà orduba, ceñean zure piedade  
santuba gueiago biardúdan!

Ja os oigo, Dios mio, que me llamis  
à Juicio.

Aguiquetandut, Jauna, deieguiten  
nauzula, Juiciora.

Ea, Alma afligida, y angust-tiada,  
mira que Dios te llama à que le des  
quenta de tu malograda vida.

Neure arima afligidua, eta angustiaz  
betea, be-guira eguizu nola zeure  
Jaungoi-coac deieguitendezun zure  
vitci gaitstoaren contuematera.

Mira que es recto y severo Juez.

Ve-guirazazú, cein zuzena dan Ja-  
unguà.

34. Egon liteke hala ere zalantzaren bat irakurketa honetan. Ze hala irakurtzen den arren nahikoa garbi, aditz flexioa bitxia gerta liteke.

35. Irakurri, berez, *cavia* irakurtzen da, baina egilearen *c* eta *t* oso gutxigatik bereizten dira askotan.

36. Hitz oso bat ageri da hemen gainetik zirriborratua *x* moduko zeinuekin.

37. Hitzaren azken parte hau, *cetic*, gainetik zirriborratua dago, eta ez da ondoegi irakurtzen.

38. Irakurketa horretan zenbait zalantza egon litekeen arren, zail gertatzen da beste zeinnahi irakurketa.

39. Gaztelaniazko testuan ditugun irakurketa zalantzak oharretan adierazten ditugu, eta ez ditugu adierazten orrialde saltoak baino, ez lerro jauziak (nahiz errespetatu ditugun erdibitutako hitzen gidoiak). Euskarazkoan, testua baino ez jada.

40. *Ea* baino gehiago *Ca* irakurtzen da, baina ondorengo eta dudagabeko beste *E* maiuskula batzuen berdina gertatzen da lehenengo letra hori eta euskarazko bertsioan ere *Ea* esaten da. Berdin aurreragoko *Ea* kasu guztietan ere.

41. Azken hitz laburtu honen gainean halako tilde bat ageri da (-), adierazi nahian, agi danean, hitz laburtua edo dela, eta *vuestra* edo irakurri beharko litzatekeela, aurreragoko beste kasuetan bezala.

Llama à los Santos de la Corte Celestial.

[Ea Bienaventurados que reinais con mi Juez, y Criador, assistid a este afligido pecador que ba à entregar su alma en manos de su severo Juez.

Interceded Santos mios, por mi á Dios paraq.<sup>e</sup> me quiera perdonar.

Ea An-gel de mi Guarda, esta es la hora en que mas necesito de vtrã asistencia.

Acompañad á mi alma hasta la presencia de mi Dios.

Abogad por mi paraq.<sup>e</sup> no se malogre esta Alma [211 or.] que Dios os encomendò.

Virgen SS.<sup>a</sup>,<sup>42</sup> Consuelo de afligidos y amparo de pecado-res;

en esta hora, Virgen pura, necesito vtrõ favor.

Sed mi Abogada ante vuestro SS.<sup>o</sup> Hijo.

Rogadle que me quiera perdonar;

que si vos interce-deis por mi, no dudo me los perdonarà,

pues reconocido de mis culpas, le pido perdon de ellas.

Ea Jesus del alma mia, ya vengo á Vos reconocido de las mu-chas culpas que contra Vtrã Divina Magestad he cometido.

Recoged, Señor, esta obeja, que os costó el inenarrable tesoro de vtrã preciosa sangre:

Deieguizu Ceruco Santu guztiai zuri laguneguitera; eta viotz gustitic esan eguiozu:

Ea Ceruco Bienaventuradubac, zeñec vitcizaràn neure Jaungoico eta Criadorequin, assistidunaizu neri becatariari; entregaitera-nua bada neure Jaunaren escue-tan neure arima au.

Santu neure- debociocoac erregutueguizu nigati Jaungoicoari, barcatu dichadala neure becatuac.

Ea neure Angueru Guardacoa, audà orduba, ceñean gueiago biardodàn zure asistencia;

Lagundueguidazu neure Jaungoicoaren presenciaràño,

eta an nigatic erregutu eguizu galdu eztadin neure arima au, cein neure Jaunac encomendadu-dizun.

Ama Virgina Santissima, afligiduric dauzen consuelo, eta becatari guztien amparo!

Ordu onetan, Virgina Santissima, biardut zure patrociño, eta amparuà:

Itzan zadiz, Señora, nere Abogada zure Seme, eta neure Jaunan au-rrean:

Erregutu eguizu barcatu deiztala neure becatuac:

baldin zuc erregutcen badiozu, ez-tut dudaric Jaun arc, barcatuco deuztalà;

cer-gatic, ezauturic neure culpac ez-catcen deutzat barcacioa biotz guztiti.

Ea, Jesus neurea, eldunaiz zugáná, neure becatuac erreconoci-duric;

Abrigaduegizu Jauna zure Creatura au, cein costaduzazun zeure gorpu-ceco odol precioso;

42. <sup>a</sup>hori SS hizkien gainean dago idatzia eta ez segidan hemen legez.

y pues para perdonarme solo que-  
reis q.<sup>e</sup> me arpepi-enta;  
digo, Señor, con todo mi corazon.  
Señor mio JesuChristo; O, mi Je-  
sus! Ó Dios Eterno!

Como os llamo mio; si yo misera-  
ble pecador, nunca he sido vuestro?  
pues mas he querido las cosas pere-  
cederas [212 or.] de este mundo  
que à Vos mi Dios, mi Criador, y  
Redemptor?

Pero ya, Señor, arrepentido, humi-  
llado, y reconocido, vengo á Vos,  
que sois mi Redemptor;

confiado, Di-os mio, en la palabra  
que teneis dada al pecador, que en  
cualquiera [hora]<sup>43</sup>, que recono-  
cido de sus culpas, os pidiere perdon,  
le perdonareis.

Señor mio Jesu Christo! O Ch-  
risto Jesus de mi vida! á quien ofen-  
di con mis culpas? [sic]

A mi Dios! A mi Padre! A mi  
Señor, y Bienhechor! y to-do mi  
bien!

A quien me dio el ser que ten-  
go, y me criò de la nada! A este  
ofendí!

A este agravie! Siendo yo una  
criatura vil, indigna de que la tierra  
me sufra!

Pero, Jesus de mi Alma; sois in-  
finito en vuestra Justicia; tambien  
lo sois en la Misericordia:

y asi, Redemptor mio, á Vues-  
tra misericordia apelo, y os pido

neri barcaquetaco, solam.<sup>te</sup> gura-  
duzu neu-re arrepentimentua:  
ba diot, Jauna, biotz guztiti:  
Neure, JesuChristo Jau-na, Jaun-  
goico, eta guizon eguiaz-coa:  
baño, nola diot neurea; bein-ere  
izan ezpanaiz ni becatariau zeurea:  
gueiago guraizanbadut nic mun-  
duonetaco gauzac zu baño?

Baño ia erreconociduic, humi-lla-  
duic, eta arrendiduic zuga-na el-  
du naiz, zeregati zu zaran nere Re-  
demptorea;

confianza an-dibatequin zuc  
becatariai emon-diozun verba ar-  
tan: Edozain orduban, ceñean be-  
cataria etor-tendan zugana arre-  
pentiduric, barcatuco diozula bere  
becatuac eta admitiduco dozula  
zeure am-istade, eta gracion.

Neure JesuChris-to Jauna,  
Jaungoico, eta Guizon egui-azcoa.  
O Jesuchristo, neure vitciza! nor  
ofendidu dudan neure pecatua-  
quin!

Neure Jaungoicoa, Neure Aita,  
eta Jauna! Neure Metcede gailea,  
eta neure ondatzun guztia!

Neuri deutzazan itzana emon,  
eta etzervere ezeti criadu ninduan-  
ri; oni ofendiduneven?

Oni agraviatu-neven nic, itza-  
nagaz ni criatu-tura vil, eta indigno  
bat; eztavena mereci lurrán gueñe-  
an egotea?

Baña, Jesus, neure arimearen  
Jueza, etzautendot cerala infini-toa  
ceure Justician; baña bai ere ceure  
misericordian;

eta alan Neure Redemptorea  
ceure misericordiagana apelaiten  
dot, etzcatcen dotzula misericordia;

43. Bertan ageri den hitza ez da *hora*. Irakur litekeena *rpo*, edo *yao* edo horrelako zerbait da. *Ho-  
ra* ipini dugu euskarazko bertsioan *ordu* ageri delako leku berean.

perdon de lo que como fragil peccador os he ofendido.

No os pido, Dios mio, que me perdoneis por el temor [213 or.] del Infierno, que merezco por mis culpas, sino solo por ser Vos quien sois, y porque os amo sobre todas las cosas del mundo mas que a mi vida y mas que a mi ser:

pues aunque no huviera Infierno, conque castigar mis culpas; solo por ser Vos quien sois, os amaré [sic],

pues sois mi Dios, mi Padre, y Redemptor:

por eso os amo;

y por eso me pesa de haveros ofendido;

y propongo de no ofenderos mas.

Hechadme, Padre mio, vtrã bendicion,

y con ella perdonar mis culpas, paraque merezca vuestra gracia, pues se llega, Señor la hora para mi tan deseada.

Ja mi enfermedad me executa.

Ja mis potencias se entorpecen.

Ja mi Alma se despide de mi cuerpo para ir á Vos.

Ja, Señor doi el ultimo aliento.

Señor, misericordia, Dios mio, y piedad, pues en vues-tras manos, Jesus mio, encomien-do mi espiritu.

Vos, Dios mio, re-dimisteis mi Alma; recibidla en vtrã Santa Compañia.

Amen.

eta peccatori fragilaleguez eguindodan ofensaen barcatcioa.

Ezteutzut Neure Jaungoicoa, ezcatcen, parcatunai-zula Infernuco penan vildurra-gaiti, ceñac mercedendan neure peccatugaitic; Ezcatcendiotzut bai Zeu añ ona itzanagaz, ofen-diduagaitic; eta cergatic amai-tenzaitudan munduco gauza guztiac baña gueiago; Neure ari-ma, eta neure vitciza baño gueiago:

bada amaduco zeinduquet naiz ez-palego Infernuric, ceñegaz peccataria castigadu, solam.<sup>te</sup> zeralaco Zerana, infinitam.<sup>te</sup> Ona;

bada Zera Neure Jaungoicoa, neure Ayta, eta Redemptorea;

Onegaitic Amaitenzaitut;

onegaiti deucat damutazun andibat Zeu ofendi-dua;

eta proponietandot ez gue-iago ofendidua.

Etzarri egui-dazu, Neure Aita, zeure bendit-cio santuba,

eta onegaz parcatu eguizu neure culpac, mercedei-dan zeure gracia; elquetanda-bada orduba, neretaco ain desea-duba.

Ja, Jauna, neure enfermedadeac acabaiten nau:

Ja, neure Potenciã, dagoz movi-mentu bagaric.

Ja neure ari-mea despedietan doa vere gorput-cetic Zugana joateco.

Ja, Jau-na emotendot atcereingo suspirio, eta alientoa.

Parcatu, Jauna, Parcatueguidazu. Misericordia, neure Jaungoicoa, eta piedadea, badà Vere ezcuetan, neure Jesus ona, entregaiten dot neure ari-mea.

Zeuc Jauna Redimiduzaben, admitiduzazu zeure Compañia Santuban

Amen.



\*\*\*\*\*

Norena da itzulpena? Julian Garcia Albenizena? Eta nor da apaiz hau? Eta nongoa? Eta noiz bizi izandu zen? Ba al zekien euskaraz? Eta non ikasia? Eta testua ze euskalkitan dago egina? Albenizko herrian, eta Ordoñanan ere, eta Araiian (hirurak Araban, Gipuzkoa eta Nafarroatik oso hurbil, baina baita ere Gipuzkoan bizkaiera hitzegiten den lurraldeetatik), Aguraingo iparraldean, Aizkorri pean, ez da jada euskararik hitzegiten Bonaparteren garaian. Izan al lezake testu honek bere “bizkai”, “giputz” edo “napar” joera nahasiekin zerikusirik garaiko eta inguruko euskalki harekin? Hala, zeinnahi delarik ere, testuak soilik adierazten du itzultzailearen idiolekto propio, eta nahasia? Hemen testua eman nahi izan dugu argitara, berak ezer argi ahal baleza.

## LABURPENA

Artikuluak euskarazko eskuizkribu ezezagun bat ematen du argitara (honen gaztelaniazko jatorrizko bertsio posiblearen parean), izan litekeelakoan berau 1778ko urte inguruan idatzirikoa Arabako Albeniz, Ordoñana eta Araiako herrien inguruko hizkera batean, mende bat geroago, Bonapartek bere ikasketak egiten dituenarako, jada desagertua izango dena lurralde hauetatik.

## RESUMEN

El artículo presenta un manuscrito hasta ahora desconocido en lengua vasca (junto a su posible versión original en castellano), cuyo origen se puede remontar a los alrededores del año 1778 y a una variedad de lengua usada en los alrededores de las poblaciones alavesas de Albéniz, Ordoñana y Araya, lugares en los que un siglo más tarde el príncipe Bonaparte no encontrará ya para sus estudios testimonios de uso de la lengua vasca.

## RÉSUMÉN

L'article présente un manuscrit jusqu'alors méconnu en langue basque (accompagné de sa possible version en espagnol), dont on peut situer l'origine aux alentours de l'année 1778, et dont le type de langue utilisée nous amène aux environs des populations d'Albéniz, d'Ordoñana et d'Araya en Alava, endroits où un siècle plus tard le prince Bonaparte ne trouvera plus pour ses études de témoignages d'utilisation de la langue basque.

## ABSTRACT

This article presents a manuscript written in Basque which was unknown until now (together with its possible original version in Spanish). The origin of the manuscript could date back to around the year 1778, and to a variety of language used in the area surrounding the villages of Albéniz, Ordoñana and Araya in Alava, places where a century later, Prince Bonaparte would not find any evidence of the use of the Basque language for his studies.